

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2017 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, aldatzen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak, martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak bere eskumenen esparruan ematen dituen dirulaguntzen oinarri-arau orokorrak onartu zituen Arabako Foru Aldundiak. Oinarri horiek dirulaguntza emateko prozedura bakar gisa norgehiagoka onartzen zuten, hau da, deialdian zehaztutako aurrekontu mugarekin, hautaketa irizpideak aplikatutakoan, puntu gehien lortu duenari dirulaguntza esleitzen dio proposamena.

Ondoren, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren bidez, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzen foru araua onartu zuten Arabako Batzar Nagusiek.

Foru arau horren 20. artikulua xedatzen du dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango dela eta salbuespenez, alegia, dirulaguntzen xedea eta izaera dela-eta norgehiagoka bidez izapidetu ezin direnean, oinarri-arauetan jakinarazi behar dela dirulaguntzak emateko prozedura lehia askea izango dela eta funtsak eskaerak jaso ahala banatuko direla harik eta aurrekontua agortu arte eta baldin eta deialdian xedatutako betekizunak betetzen badira.

Dirulaguntzak emateko prozedura lehia aske bidez garatu ahal izateko, aldatu egin behar dira Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak ematen dituen dirulaguntzen oinarri-arau orokorretako zenbait artikulua.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Aldatzea martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren zenbait artikulua eta paragrafoa. Foru dekretu horren bidez Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak bere eskumenen esparruan ematen dituen dirulaguntzen oinarri-arau orokorrak onartu ziren. Hona hemen aldatutako artikulua eta paragrafoak eta horiek aurrerantzean izango duten testua:

“1.1. Dekretu honen xedea da oinarriak ezartzea Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak bere eskumen esparruko dirulaguntzak norgehiagoka edo lehia aske bidez emateko, aukeran den aurrekontu kredituen kargura.

Honako lerro hauetan emango dira dirulaguntzak:

- Prestakuntza eta enplegu plan eta programak
- Prestakuntza jarduerak langileak kualifikatzeko, enplegua lortzeko eta zentroak hobetzeko
- Enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzaren sustatzea
- Autonomoei laguntzea
- Txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea
- Turismoa eta eskulangintza
- Beste edozein dirulaguntza lerro, zuzendaritzaren eskumeneko eremuan.

3.2. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 11. eta 13. artikuluetan eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenaren, 12. eta 13. artikuluetan ezarritako baldintzez gain hauek ere bete beharko dituzte eskatzaileek, zuzendaritzak dirulaguntzak eman eta ordaindu aurretik:

– Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean edukitzea, salbu eta 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hori frogatu beharretik salbuetsita daudenean. Salbuespen hori frogatzeko, erakunde eskudunek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Hala ere, aukera teknikoek eta baimenek bidea ematen badute, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren kontu geratuko da ziurtagiri horiek Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari eskatzea. Laguntzen eskaera aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea aipatutako ziurtagiriak eskatzeko, behar beste aldiz.

– Pertsona juridikoak izanez gero, legez erataka egon beharko dute, eta, gainera, diruz lagunduko den jarduerak haien xede edo helburu sozialekin zuzeneko lotura izatea eskatuko da.

5.1. Deialdian adierazten den moduan aurkeztuko dira eskaerak. Aurkezteko modu hauek izan daitezke:

– eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo ituna duten udalen erregistro orokorretan.

– bide elektronikotik, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan, deialdian horrela aurreikusten denean.

Nolanahi ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen duena aplikatuko da.

5.2. Deialdi espezifikoan hala adierazten denean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak deialdi horretarako diseinatutako ereduetan egingo dira eskaerak eta hari eskatzen diren agiri osagarri guztiak erantsiko zaizkio. Eskaera ereduak eskura egongo dira aipatutako zuzendaritzan eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian.

6. ORGANO ESKUDUNAK ETA DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA EBAZTEA.

6.1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua izango da instrukzio organoa, eta behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz.

6.2. Norgehiagoka denean dirulaguntza emateko prozedura, gutxienez hiru pertsonak osatutako Balorazio Batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak. Deialdietan zehaztuko da haien eraketa. Batzorde horri eskaerak aurkeztu aurretik, ebazteko eskumena duen organoari proposatuko dio ez daitezela onartu deialdian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten eskaerak, halakorik egonez gero.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako proiektu edo jardueren eskabideak baloratuko ditu, laguntzen gaineko deialdi bakoitzean ezarritako irizpideei jarraikiz, eta horien arteko lehentasuna ezarriko du. Lehentasun hori oinarri hartuta, eskatutako proiektu edo jarduera bakoitzeko, adjudikazioak proposatuko dira, aipatutako irizpide horiek aplikatu ondoren, baloraziorik onena lortu dutenei, deialdian zehaztutako mugarekin, eskuragarri dagoen kredituaren barruan. Muga hori gainditu ondoren, eskatutako proiektu edo jarduerak ukatzeko proposamena egingo da, deialdietan ezarritako helburu eta betekizun orokorretara egokitu ahal badira ere.

Eskuragarri dagoen aurrekontua agortzen duten puntuazioen azken tarteari dagozkion adjudikazioak eskuragarri dagoen gerakina hainbanatuz egingo dira, diruz lagun daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzaren dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuaren arabera.

Halaber, deialdi bakoitzean finkatu ahal izango dira dirulaguntza ehunekoak, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatuko zaizkienak, adjudikatu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

Salbuespenez, deialdietan hala aurreikusten denean, onartu ahal izango da onuradunen artean hainbanatzeko aukera, eskatutakoaren eta dirulaguntzarako jarritako gehieneko zenbateko osoaren arteko gaindikinari dagokion ehunekoan.

Balorazio Batzordeak, dirulaguntza zein proiektu edo jarduketari emango zaion proposatzeaz gain, onuradun izaera eskuratzeko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak betetzen dituzten baina ezarritako gehieneko kreditua gainditzeagatik onartu ez diren eskaeren zerrenda ordenatua ere erantsi ahalko du.

Balorazio Batzordeak balorazioaren emaitzak bidaliko dizkio instrukzio-organoari, ebazpen proposamena egin dezan.

6.3. Lehia askea denean dirulaguntza emateko prozedura, eskaerak jaso ahala banatuko dira funtsak, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte eta baldin eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen badira.

6.4. Organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, eta behar diren betekizunak edo baldintzak ezarriko ditu.

6.5. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, xedatutakoaren arabera jakinaraziko dira ebazpenak.

6.6. Oro har, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, urtarrilaren 3ko 1/1999 Araugintzako Foru Dekretuak, administrazioaren isiltasunari buruzko foru araudia egokitzen duenak, 2.14 artikuluan ebazpenak eman eta jakinarazteko xedatutako sei hilabeteko epea igaro eta berriazko ebazpenik eman ez denean.

15. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.

15.1. Jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira arau hauek ezarritakoetan: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoaren dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren, dirulaguntzenaren, Arautegia.

15.2. Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko diru sarrerak izango dira, eta abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu erregimenarenak, II. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

22. ARAUDI APLIKAGARRIA.

Oinarri hauek ez xedatutakoa hauek arautuko dute: urriaren 19ko 11/16 Foru Araua; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren, dirulaguntzenaren, Arautegia; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena; indarrean dagoen aurrekontua arautzen duen foru araua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarri diren gaienerako arauak.

23. ERREKURTSOAK.

Oinarri hauei eta haien ondorio diren administrazio egintzei urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, xedatutako egoeretan eta eran egin ahal izango zaie aurka."

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES